

1. SARRERA

Peio, Nahia, Aizea, eta Aintzane gara, jasangarritasunaren aldeko apustua egiten duten euskaldun abenturazaleak. Gure Euskal Herri maitea, natura eta kirola maite dugu eta 3 gauza horiek uztartuz, eta betiere gure herriaren iraunkortasuna bermatuz, gure ilusioak beste pertsonekin partekatzeko proiektua martxan jartzea erabaki dugu. Horrela jaio da EuskalTour turismo agentzia, txirrindulekin Euskal Herriko txoko berezienak taldean ezagutzeko aukera ematen duena. Garraioek sortzen duten kutsaduratik ihesi eta horrek suposatzen duen kostu ekonomiko gehigarriak ekidin nahiean, Euskal Herria bi gurpiletan, taldean eta modu inklusiboan zeharkatzeko zerbitzu integrala eskaintzen dugu.